# Rs4. Derrigorrezko irakaskuntzako emaitza akademikoen bilakaera.

**Lehen Hezkuntzako 6. ikasturteko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 2. ikasturteko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 4. Ikasturteko emaitza akademikoen konparazioa, ikasleen mailen gainditze eta promozioari dagokionez, 1997-2002 urteetan.**

(1) Promozionatzea: Hurrengo ikasturtera igaro daitezke arlo eta ikasgai guztiak gaindituta izan gabe.

Adierazle honek, alde batetik, hurrengo ikasturtera dena gainditu gabe pasatzen diren ikasleen ehunekoaren berri ematen du eta, beste aldetik, hurrengo ikasturtera dena gainditu dutela igarotzen diren ikasleen ehunekoaz jakinarazten du, bi kasuetan Lehen Hezkuntzako 6. Ikasturtea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 6. Ikasturtea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 4. Ikasturtea bukatu ondoen.

Hurrengo ikasturtera igarotzen diren ikasleen ehunekoak, azken bost urteetan maila antzekoetan mantendu dira, bai LHren 6. Ikasturtea bukatu ostean (%95 gutxi gorabehera) nola DBHren 2. Ikasturtean (%85 gutxi gorabehera) eta DBHren 4. Ikasturtean (%81 gutxi gorabehera).

Era berean, arlo eta ikasgai guztiak gaindituta dituztela bukatzen duten ikasleen ehunekoak aztertzen baldin baditugu, maila oso antzekoak ikusiko ditugu azkeneko bost urteetan, bai LHren 6. Ikasturtea bukatzean (%75 gutxi gorabehera), nola DBHren 2. Ikasturtea bukatu ondoren (%54 gutxi gorabehera), eta DBHren 4. Ikasturtean (%60 gutxi gorabehera).

Hurrengo ikasturtera igarotzen diren ikasleen ehunekoak handiagoak dira LHko 6. Ikasturtean DBHko 2. Ikasturtean baino, era berean, azken horiek handiagoak dira DBHko 4. Ikasturtean baino; dena gaindituta duten ikasleen artean, ehuneko handienak LHk 6. Ikasturtean daude, ondoren DBHko 4. Ikasturtekoak daude, azkenik DBHko 2. Ikasturtekoak daudela.

**Rs4.1 Taula**

LHko 6. Ikasturte, DBHko 2. Ikasturte eta DBHko 4. Ikasturtearen bukaeran hurrengo ikasturtera igaro diren ikasleen ehunekoari buruzko datuak. 1997. urtetik 2002. urtera bitartean.

| % Igaro | LH-ko 6. maila | DBH-ko 2. maila | DBH-ko 4. m. |
|---|---|---|---|
| 97-98 | 97 | 83 | |
| 98-99 | 96 | 87 | 81 |
| 99-00 | 95 | 85 | 79 |
| 00-01 | 95 | 85 | 81 |
| 00-02 | 95 | 85 | 81 |

**Rs4.1 Grafikoa**

LHko 6. Ikasturte, DBHko 2. Ikasturte eta DBHko 4. Ikasturtearen bukaeran hurrengo ikasturtera igaro diren ikasleen ehunekoari buruzko datuak. 1997. urtetik 2002. urtera bitartean.







Oharra:
1998. urtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ez zegoen oraindik guztiz ezarrita.

Definizioa:
Promozionatzea: LHko 6. Ikasturtea, DBHko 2. Ikasturtea eta DBHko 4. Ikasturtea bukatzean dagokion ikasturte, ziklo edo etapara pasatzen diren ikasleak, nahiz eta arlo edo ikasgai guztietan gai ez izan.

Iturria: Hezkuntzako Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2002.

## Rs4.2 Taula

LHko 6. Ikasturtea, DBHko 2. Ikasturtea eta DBHko 4. Ikasturtea bukatzean arlo edo ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaerari buruzko datuak. 1997. urtetik 2002. urtera bitartean.

| % Dena gainditua | LH-ko 6. m | DBH-ko 2. m | DBH-ko 4. m |
|---|---|---|---|
| 97-98 | 76 | 51 | |
| 98-99 | 75 | 56 | 66 |
| 99-00 | 76 | 53 | 58 |
| 00-01 | 75 | 52 | 59 |
| 00-02 | 75 | 54 | 59 |

## Rs4.2 Grafikoa

LHko 6. Ikasturtea, DBHko 2. Ikasturtea eta DBHko 4. Ikasturtea bukatzean arlo edo ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaerari buruzko datuak. 1997. urtetik 2002. urtera bitartean.







Oharra:
1998. urtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ez zegoen oraindik guztiz ezarrita.
Definizioa:
Gainditua: Arlo edo ikasgai guztietan nahiko edo altuagoko kalifikazioak duten ikasleak.

iturria: Hezkuntza Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2002.